

OD GAIXOTASUNEN INTZIDENTZIA NORMALA 1989AN

Jabier Agirre

SANITATE eta Kontsumorako Minis-
traritzaren **Astero-
ko Buletin Epidemiologikoaren**
arabera, 1989an obligazioz de-
klaratu beharreko gaixotasunen
(ODS) kopurua *intzidentzia nor-
mala* bezala kontsidera daitekeen-
aren barruan mantendu zen. Hiru
izan ziren normaltasunaren muga
gainditu zuten gaixotasunak: pneu-
monia, barizela eta parotiditisa,
hain zuzen.

Hesteetako infekzioak

Hesteetako eritasun infekzio-
soen taldean ez da, iazko zifrekin
konparatuz, aldaketa nabarmenik;
finkotasuna baizik. Sukar tifoideo
eta paratifoideoen kasuan ordea,
egon da gorakada txikiren bat (%
6,02 batezbeste) Komunitate Auto-
nomo gehientsuenetan. Salbues-
pena Kantabria izan zen (% 75eko
beherakada). Disenteria ere,
1987an eta 1988an nabarmenki be-
herantz, zertxobait igo zen 1989an
(% 6,65); Estremaduran bereziki.
Janariengatikotoxiinfekzioak, bes-
talde, ez zuten inolako aldaketarik

erakutsi 1988arekiko, eta urte oso-
ko kasuak 44.954 izan ziren.

Arnas infekzioak

Urtean zehar deklaraturako ar-
nas infekzio akutuen kopurua
14.055.850ekoa izan zen, 1988ko
zifrekiko % 5eko beherakada adie-
razten duelarik. Gripearri dago-
kionez, deklaraturako kasuak
(3.544.299) iazkoak baino % 23
gutxiago izan ziren. Pneumoni
kasuak gorantz joan dira 1988 urte-
raino, baina 1989an % 12,47ko
beherakada jasan dute. Gauza bera
gertatzen zaio tuberkulosiari;
1987tik aurrera beherantz egiten ari
bait da.

Gaixotasun exantematikoak

1989a urte epidemikoa izan zen
elgorriarentzat: ia 33.000 kasu de-
klaratu ziren. Dena den, aurreko
urte epidemikoan, 1986an, dekla-
razioa askoz ere altuagoa izan zen
(220.109 kasu). Nahiz eta errubeo-
lak beherantz egin, 2.972 kasu
gehiago deklaratu ziren 1988an bai-
no. Barizela gora doa, urtetik urtera,
70.eko hamarkadaz gero eta 1989.
urtean 512.426 kasu izatera iritsi
zen, eskarlatinak hirugarren urtez
jarraian behera egin zuen bitartean.

Zoonosiak

ODG hauetatik, sukar exante-
matiko mediterraniarrak soilik ja-
san zuen gorakadatxo bat 1989an
(iaz baino 98 kasu gehiago); Ba-
learetan, Gaztela-Mantxan, Estre-
maduran eta Errioxan batipat. Kar-
bunkoa (137 kasu), bruzelosia
(4.217) eta hidafidosia (620 kasu)
beherantz doaz; ez oso nabarmen,
baina bai joera mantentzeko mo-
duan.

Transmisio sexualeko eraitasunak (TSE)

Pentsa zitekeenaren kontra, Bu-
letinak dioenez zenbait TSEk (si-
filiak eta infekzio gonokozikoak,
esate baterako) joera nabarmenki
beherakorra dute azken bosturte-
koan. 1989. urteko kasuak (1.809
eta 18.348 hurrenez hurren) behe-
rakada horren erakusgarri dira.
Melilla da sifili-tasaren gorakada
izan duen bakarra.

Bestelakoak

Deklaraturako infekzio menin-
gokozikoaren 1.636 kasuak 1988ko
zifrak baino gorago daude, baina
bosturtekoaren hasieran erregistra-
turiko tasen azpitik mantentzen
dira hala ere.

OBLIGAZIOZ DEKLARATU BEHARREKO GAIKOTASUNAK

| GAIKOTASUNAK | 1988 (kasuak) | 1989 (kasuak) | Tasak 10 ⁵ bizt. |
|------------------------------------|---------------|---------------|-----------------------------|
| Sukar tifoidea eta paratifoidea | 2.693 | 2.882 | 7,04 |
| Disenteria | 1.281 | 1.380 | 3,36 |
| Janariengatiko toxiinfekzioak | 44.877 | 44.954 | 109,75 |
| Beste beherako-motak | 2.222.892 | 2.300.709 | 5.617,23 |
| Arnas infekzio akutak | 14.656.481 | 14.055.850 | 34.317,66 |
| Gripeak | 4.594.088 | 3.544.299 | 8.653,48 |
| Pneumonia | 131.128 | 115.933 | 283,05 |
| Tuberkulosia | 8.497 | 8.057 | 19,67 |
| Elgorria | 22.701 | 32.908 | 80,34 |
| Errubeola | 18.248 | 21.220 | 51,80 |
| Barizela | 397.041 | 512.426 | 1.251,10 |
| Eskarlatina | 5.893 | 5.174 | 12,63 |
| Karbunkoa | 217 | 137 | 0,33 |
| Bruzelosia | 4.683 | 4.217 | 10,29 |
| Hidatidosia | 718 | 620 | 1,51 |
| Sukar exantematiko mediterraniarra | 811 | 870 | 2,12 |
| Sifilia | 2.380 | 1.809 | 4,41 |
| Infekzio gonokozikoa | 20.330 | 18.348 | 44,79 |
| Infekzio meningokozikoa | 1.505 | 1.636 | 3,99 |
| Hepatitisa | 25.017 | 23.051 | 56,27 |
| Sukar erreumatikoa | 4.139 | 3.533 | 8,62 |
| Parotiditisa | 41.671 | 83.527 | 203,93 |
| Kukutxeztula | 14.506 | 33.212 | 81,08 |
| Difteria | ---- | ---- | ---- |
| Sukar atzerakaria (kaparrak) | 177 | 229 | 0,55 |
| Legenarra | 20 | 20 | 0,04 |
| Leishmaniosia | 100 | 88 | 0,21 |
| Leptospirosia | 8 | 9 | 0,02 |
| Jaioberriaroko oftalmia | 47 | 30 | 0,07 |
| Paludismoa | 146 | 116 | 0,28 |
| Poliomielitisa | 3 | 2* | 0,005 |
| Errabia | ---- | ---- | ---- |
| Erdiberriaroko sepsia | 15 | 6 | 0,01 |
| Tetanoa | 49 | 56 | 0,14 |
| Trakoma | 13 | ---- | ---- |
| Trikinosia | 20 | 182 | 0,44 |
| Kolera | ---- | 1 | 0,002 |

* Kasu bat Mauritaniatik inportatua izan zen.

Epidemiologi Zentru Nazionalaren arabera, hepatitisaren deklarazioek beherazko joera dute 1986az gero, eta zentzu horretan 1989an deklaraturako 23.051 kasuek % 8,79ko beherakada adierazten dute 1988koekiko.

Gauza beretsua gertatzen da sukar erreumatikoarekin (3.533 kasu 1989. urtean); Asturias-en izan ezik komunitate autonomo guztietan jaitsi bait da (% -15,57). Parotiditisarentzat eta kukutxeztularentzat urte epidemikoa izaki, 1989an 80.527 kasu eta 33.212 kasu dekla-

ratu ziren hurrenez hurren.

Intzidentzia baxuko ODGen artean, difteri kasu bakar bat ere deklaratu gabe joan zen urtea. Baina epidemiologoek eritiz ez da *gai-xotasun hori eliminatua izan denik* pentsatu behar; ezta gutxiagorik ere. Aipatzekoa da, bestetik, jaioberrien oftalmia eta erdiberriaroko sepsiaren kasuak asko jaitsi direla, eta trakoma-kasurik ez dela deklaratu. Tetano-kasuak (ituraz behar baino gutxiago deklaratu da) 56 gehiago izan ziren. Hiru kolera-kasu bakarrik deklaratu ziren:

bat Salamankan deklaratu (eta Turkiatik ekarria) eta beste bi Sevillan, bertan sortuak.

Bukatzeko, 1989an errabia, tifus exantematikoa, zorriek eragindako sukar atzerakaria, pestea eta sukar horia desagertutzat eman zirela (betirako ote?) aipatu behar da.

ITURRIA:

Obligazioz deklaratu beharreko gaitasunak. Epidemiologi Zentru Nazionala. Erabilitako populazioa: Sanitate eta Kontsumo Ministeritzan kalkulaturako proiektzioak.